

Zer eskatzen du Tahrir-ek?

Dimisioa eskatzen zuten protesta masiboen ondoren, Mohamed Morsi Egiptoko presidentearen aurkako estatu-kolpea jo du armadak. Nola ulertu herrialdean gertatzen ari dena? Konglomeratu konplexua dira Egiptoko protestak, baita analisirako funtsezko osagaia ere. Eta aurrerantzean zeresana ematen jarraituko dutela dirudi.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |



REUTERS

Tahrir plazako manifestariak, Morsi Gobernutik bota zutela jakin osteko ospakizunetan.

HASIERATIK zeukan estatu-kolpe usaina Egiptoko militarren ultimatumak eta uztailaren 1ean emandako 48 orduko epea amaituta, joan den asteazkenean Mohamed Morsi presidentea kargutik kendu, parlamentua desegin eta konstituzioa indargabetu dute. Mundu osoko hedabideetan zabaldu da berria,

Egipto albiste da osterera ere duela bi urtetik bigarren mailako gaien zokoan egon ostean. Horregatik komeni da testuinguru apur bat ematea, ez bailitzateke oso zehatza kontagailua uztaileko lehen hiru egunetan jarri eta gertatu dena prisma horretatik bakarrik aztertzea. Egipton 2011ko urtarriletik ikusten

ari garenaren konplexutasunari muzin egitea litzateke.

Mubarak tronutik botatzea iraultza klasiko baten ezaugarrien arabera ulertu genuen eta beharbada horitik datoz oraingo uclermen arazoak: Morsi militarrek bota dute, baina ezin da ukatu herriaren zati handi baten mobilizaziorik gabe, Anaia

Musulmanak ez zirela orain gobernutik kanpo egongo.

Orduan, *The Guardian* egunkariak uztailaren 4ko azalean jarri duen moduan, Egiptoko bigarren iraultzaren aurrean ote gaude? Mubarak-en garaiko elementuak berriz agertzen hasi direla kontuan izanda, nola baieztatu halakorik? Zer da ba, kontrairaultza? Iraultza egin zuten manifestari berdinaren eskutik?

Iraultzaren eta erreformaren artean

Asef Bayat soziologoak *New Left Review* aldizkarian aurtengo apirilean argitaratutako artikulu batek eman ditzake gertatzen ari dena ulertzeko pista onak. “Iraultzak garai txarretan” izeneko testuan, 2011tik Egipton ikusten ari garen gertakariak –baita Tunisiakoak ere–, iraultza eta erreformaren arteko leku zehaztugabe batean kokatu zituen –“*refolution*” hitza erabili zuen fenomenoak deskribatzeko, “*reform*” eta “*revolution*” hitzen erdibideko zerbeit–.

Egiptoko masa-mugimendua, Bayatek dioenez, erreformak gaur egungo erregimenetako erakunde bidez lortu nahi dituen iraultza da. Eta hori erdiesteko modua etengabeko mobilizazioa da, herri-mugimenduek gobernuan daudenak zaintzapean edukiz. “Gainontzean *errefoluzioek* kontrairaultza berrezartzeko etengabeko arriskua dute, iraultzak ez direlako egin estatuko boterearen gakoa diren erakundeetan”.

Zergatik hartu duten Egiptoko eta Tunisiako herri-matxinadek halako izaera? Bayatek nabarmentzen dituen ezaugarrien artean, diktadoreak oso azkar erori izana kontuan hartzekoa da. Horrek pentsarazi zuen iraultza bukatu zela eta helburuak lortu zirela: hauteskunde demokratikoak Egipton, herritarrek gehiengoz hautatutako presidentea –ez da hala, lehen itzulian Morsik botoen %24,7 lortu zuen; bigarren %52, baina abstentzio oso altuarekin–, eta hortik aurrera ibilide “normala”.

Tira, ba badirudi halako normaltasunik ez dutela izango puska batean Egipton: Mubarak bota zuten manifestarien erabakimen fal-



Abdel Fattah al Sisi ezkerrean eta Mohamed Morsi eskuinean. Egiptoko presidentea ohiak Mubarak-en garaiko koadro militarren ordez izendatu zuen Defentsa ministro Sisi. Azkenean, bere eskutik etorri da Anaia Musulmanen Gobernuaren amaiera.

tak, antolakuntza arazoek, ikuspegi estrategikoaren gabeziak eta lidergorik ezak aukera paregabea eman zien duela urtebete Anaia Musulmanei boterea hartzeko, iraultzan rol mugatua jokatu zuten arren, hobeto antolatuta zeudelako. Haien gobernatzeko moduarekin pozik ez

Militarren esku hartzeak estali ditu herritarrek Morsiren kontra egin dituzten manifestazio masiboak, baina horiek gabe ezin da ulertu Egipton joan den astean gertatu dena

eta herria kalera atera denean, jende kopuruari begiratu historikotzat jo litezkeen mobilizazioetan, militarrek agertu dira eszenan berriz.

Dena den, Tahrir plazako manifestarien presentziak berak asko zailduko dio armadari gobernu diktatoriala ezartzea. Morsi boteretik kendu aurretik ere, behin eta berriz errepikatu dute ultimatumaren helburua ez zela boterea beren esku hartzea eta badirudi trantsizio berri bat izango dela partidako hurrengo jokaldia.

Iraultza luzea

Partidaren luzera, ordea, ez da nolana hikoia izango, ematen baitu luzapena eta penaltiak izango ditugula. Iraultzaren eta erreformaren artean kokatuta egote horrek, Egiptoko herri-mugimenduari zera dakarkio onenera: amaitu gabeko prozesua dela eta beraz, une bakoitzean agintea hartzen duenak plaza okupatzen duten manifestarien eskariak betetzen ez baditu, gobernu-aldaketaren aukera beti egongo dela mahai gainean –nahiz eta horrela 2011ko espirituarekin zerikusirik ez duten indarren agerpen oportunistei ere atea zabaltzen zaien–.

Labur esateko, Bayaten irudiko, Raymond Williamsek *The Long Revolution* (Iraultza luzea) liburuan teorizatutakoaren aurrean egon gintezke Egipton. Iraultza konplexu bat, esparru ugari ukituko dituen, ekonomikotik eta soziale- tik harago, kultura eta pertsonen arteko harremanak alda litzakeena. Urteak iraun ditzakeen prozesua eta, uren uneko gertakarietatik harago, ikuspegi zabalagoz aztertzea eskatuko duena. ■

